***2024KO URRIAREN 22AN HAUTESKUNDE BATZORDE NAGUSIKO BILERAREN AKTA***

***ACTA DE LA REUNIÓN DE LA COMISIÓN ELECTORAL GENERAL 22 DE OCTUBRE 2024***

**PRESIDENTE-PRESIDENTEA**
Manoli Igartua Olaechea
**SECRETARIO- IDAZKARIA**
Aitor Zurimendi Isla
**REPRESENTANTE PDI-IIPren ORDEZKARIA**
Laura Vozmediano Sanz
**REPRESENTANTE PDI NO DOCTOR PERMANENTE- IIPEDIren ORDEZKARIA**
Ez da bertaratu/No asiste
**REPRESENTANTE DEL OTRO PDI-BESTELAKO IIPren ORDEZKARIA**
Ezin etorria adierazi du/Excusa
**REPRESENTANTE DEL PAS-AZPren ORDEZKARIA**
Jesús Martin Orbea
**REPRESENTANTE DEL ALUMNADO-IKASLEEN ORDEZKARIA**
Ez da bertaratu/No asiste
**INVITADO**
Aitor Sanchez Ferrera

Jorge Ezkurdia González, Idazkaritza Nagusiko burua, bertaratu da aholkulari teknikari moduan.

Asiste como técnico asesor el Jefe de Secretaría General Jorge Ezkurdia González.

2024ko Urriaren 22an, eguerdiko 12:30etan, TEAMS aplikazioaren bitartez alboan aipatzen diren Hauteskunde Batzorde Nagusiko kideak bertaratu dira, aztertzeko hurrengo

El día 22 de octubre de 2024, a las 12:30 de la mañana, a través de la aplicación TEAMS se reúnen los miembros de la Comisión Electoral General reseñados al margen para tratar el siguiente.

**Aztergaien zerrenda:**

1. Jasotako idazkiak.
2. Galde-eskeak.

**Orden del día.**

1. Escritos recibidos.
2. Ruegos y preguntas

**1**.- <u>Jasotako idazkiak / Escritos recibidos.</u>

A.- Josune Pérez Estrada irakasleak egindako idazkiaren inguruan (I. eranskina), Hauteskunde-Batzorde Nagusiak jakinarazten du:

A.- En relación con el escrito de la profesora Josune Pérez Estrada (Anexo I), la Comisión Electoral hace saber:

**Lehenengo.-** Batzorde honek datorren bileran hauteskunde mahien banaketa onartuko du. Hala ere, proposamen bat bidali diegu ikastegiei eta campusei, haiekin adosteko asmoz. Medikuntzako irakasguneen inguruan, printzipioz ez dugu aurreikusi mahien kokapena, leku hauetan lan egiten duten langileek asistentzia-lanak dituztelako eta zaila izango delako ospitaleak hauteskunde-mahaian egoteko baimena ematea. Dena dela, azaroaren 18tik 21era irakasguneetan botoa aldez aurretik emateko aukera egongo da. Gainera, momentu honetan aztertzen ari gara, Fakultateko dekanoarekin batera, Txagorritxun hauteskunde mahi bat jartzeko aukera. Esperientzia geletan hauteskunde mahiak izango dira.

Parte-hartzea sustatzeko komunikazio-kanpaina egiteari dagokionez, bereziki ikasleen artean, webguneko informazioaz eta hauteskundeei buruz bidaltzen diren mezuez gain, komunikazio-bulegoarekin hitz egin da, ildo horretan ekintzaren bat egin dezan

**Primero.-** La distribución de mesas electorales será aprobada por esta Comisión en una próxima sesión. No obstante, se ha enviado una propuesta a los centros y campus porque pretendemos acordarla con ellos. Sobre las unidades docentes de medicina, en principio no está prevista la colocación de mesas puesto que el personal que allí trabaja tiene ese día tareas asistenciales y es complicado que el hospital dé permiso a personas para estar en la mesa electoral. No obstante, sí se podrá hacer depósito de voto en las unidades docentes del 18 al 21 de noviembre e incluso se está barajando la posibilidad de colocar una mesa en Txagorritxu, lo que se está hablando en este momento con el decano de la facultad. Sí habrá mesas en las aulas de experiencia.

En cuanto a la realización de una campaña de comunicación para fomentar la participación, especialmente entre el estudiantado, además de la información de la web y de los mensajes que se envíen sobre las elecciones, se ha hablado con la oficina de comunicación para que realice alguna acción en este sentido.

**Bigarrena.-** Hauteskunde Batzorde Nagusiaren arabera, aurreko hauteskundeetan egin den bezala, biderik egokiena IKTek mezu masiboak bidaltzeko ezarritako prozedura da. Prozedura hau hautagaiei bidaliko zaie Batzorde honek behin betiko hautagaitzak aldarrikatu ondoren. Hautagai bakoitzak birritan bakarrik bidali ahal izango du bidalketa masiboa, betiere hauteskunde-kanpainaren barruan (azaroaren 8tik 24ra). Bidalketa-prozedura masibo horrek hurrengoa aurreikusten du: IKTetara mezua gutxienez lanegun bat lehenago bidali behar da eta inola ere ez zaie emango hautagaiei unibertsitate-komunitate osoko helbide elektronikoak.

**Segundo.-** La comisión electoral general entiende que la vía más adecuada para ello, tal y como se ha hecho en elecciones anteriores, es el procedimiento de envío masivo de mensajes establecido por las TIC, que será remitido a las personas candidatas una vez que esta Comisión haya aprobado formalmente las candidaturas. Cada candidata o candidato únicamente podrá realizar dos envíos masivos y siempre dentro del período de campaña electoral (del 8 al 24 de noviembre). Este procedimiento de envío masivo supone enviar el mensaje a las TIC con al menos un día laborable de antelación y en ningún caso supone la entrega a las personas candidatas de las direcciones de correo electrónico de toda la comunidad universitaria.

**Hirugarrena.-** Galderak jaso bezain laster, Hautagaiei bidaliko zaizkie haiek eskatutako moduan. Halaber, galdera hauek klaustrokideek klaustroko forora bidaliko dituzte, eta beraz, publikoak izango dira.

**Tercero.-** Se enviarán las preguntas a las personas candidatas por la vía que éstas nos soliciten tan pronto sean recibidas, si bien éstas serán enviadas por los claustrales a través del foro del claustro y por tanto serán públicas.

B.- José Ramón Begoechea irakasleak egindako idazkiaren inguruan (2. eranskina), Hauteskunde Batzorde Nagusiak jakinarazten du:

B.- En relación con el escrito del profesor José Ramón Bengoechea (Anexo 2), la Comisión Electoral General hace saber:

**Lehenengo.-** Hauteskunde Batzorde Nagusiak ez du eskumenik[1] bestelako boto-modalitate batzuk aurreikusteko eta bermatzeko, idazkiak eskatzen duen bezala. Hau, kontuan izan gabe,

UPV/EHUko errektore hauteskundeetarako deialdia egiteko Gobernu Kontseiluak 2024ko irailaren 26an hartutako erabakia[2], eta bertan ezarritako baldintzak eta hauteskunde egutegia, zeinetan estatutuetan bermatutako boto eskubidea aitortzen den.

**Primero.-** Que la Comisión Electoral General carece de competencias[1] para prever y garantizar modalidades adicionales de voto, tal y como pide en su escrito, al margen de los términos, condiciones y calendario electoral que ha establecido el Consejo de Gobierno, para el ejercicio del derecho al voto estatutariamente reconocido, en el acuerdo[2] de fecha 26 de septiembre de 2024, por el que se convocan elecciones a Rector o Rectora de la UPV/EHU.

**Bigarrena.-** UPV/EHUko Estatutuek[3], Hauteskundeei[4] buruzko Arautegi Orokorraren eta Errektorea[5] Aukeratzeko Hauteskundeei buruzko Arautegiaren xedapenek beren osotasunean islatzen eta aitortzen dute gure unibertsitate-komunitateko kideen sufragio aktiborako eskubidearen unibertsaltasuna. Era berean, Gobernu Kontseiluaren 2024ko irailaren 26ko erabakia, xedapen horien arabera onartu zen.

**Segundo.-** Que las previsiones contenidas en los estatutos[3] de la UPV/EHU, en su Reglamento de Régimen Electoral General[4] y en el Reglamento[5] para la elección de Rector o Rectora reflejan y reconocen en su plenitud la universalidad del derecho de sufragio activo de los y las miembros de nuestra comunidad universitaria, y, así, también el acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 26 de septiembre de 2024, aprobado de conformidad con dichas disposiciones.

**Hirugarrena.-** Gainera, aipatutako hauteskunde-deialdiaren erabakiak aurreikusten du, indarrean[6] dagoen araudiak ezartzen duen bezala, botoa emateko eskubidea duten unibertsitate-erkidegoko kideek botoa aldez aurretik emateko aukera dutela, horrela, prozedura honek, bozketa partaidetza erraztu, eta beharrezkoak diren berme guztiak errespetatzen dituelarik.

**Tercero.-** Que el citado acuerdo de convocatoria de elecciones ha previsto, de conformidad con la reglamentación vigente[6], que los y las miembros de la comunidad universitaria con derecho de sufragio activo puedan ejercer el derecho al voto mediante su depósito con carácter previo al día de la votación con el fin de facilitar su participación en la misma, y ello, con respeto a las obligadas garantías que han de presidir su ejercicio

**Laugarrena.-** Hori dela eta, Hauteskunde Batzorde Nagusiak ez du boto eskubidearen unibertsaltasunari eragiten dion ordezkatu edo osatu beharreko inolako hutsunerik edo gabeziarik ikusten

**Cuarto. –** Que esta Comisión Electoral General no aprecia, por consiguiente, ninguna laguna o deficiencia que afecte a la universalidad del derecho de sufragio activo que deba ser suplida por la misma

[1] *Errektorea Aukeratzeko Hauteskundeei buruzko Arautegiaren testu bategina. 5. artikulua (EHAA 2022ko azaroaren 9a), eta 11.1. artikulua, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren testu bategina (EHAA 2022ko azaroaren 9a). / Artículo 5 del texto refundido del Reglamento de elección de Rector o Rectora (BOPV de 9 de noviembre de 2022), y artículo 11.1 del texto refundido del Reglamento de Régimen Electoral General de la UPV/EHU (BOPV de 9 de noviembre de 2022).*
[2] https://www.ehu.eus/documents/d/idazkaritza-nagusia/4-b-conv_elec_rect_signed_signed/
***https://www.ehu.eus/documents/d/idazkaritza-nagusia/4-b-conv_elec_rect_signed_signed***
[3] 17/2011 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena. (***EHAA 2011ko otsailaren 24a), 179 artikulua / Artículo 179 del Decreto 17/2011, de 15 de febrero, por el que se aprueban los estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (BOPV de 24 de febrero de 2011).***
[4] ***UPVEHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren testu bategina, 3. artikulua. / Artículo 3 del texto refundido del Reglamento de Régimen Electoral General de la UPV/EHU***
[5] ***Errektorea Aukeratzeko Hauteskundeei buruzko Arautegiaren testu bategina 2.1 artikulua. / Artículo 2.1 del texto refundido del Reglamento de elección de Rector o Rectora***

[6] *Errektorea Aukeratzeko Hauteskundeei buruzko Arautegiaren testu bategina 16. artikulua eta horren ordez, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren testu bategina 7. artikulua, aukeraketa arautegiaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera. /Artículo 16 del texto refundido del Reglamento de elección de Rector o Rectora, y, con carácter supletorio y general, artículo 7 del Reglamento de Régimen Electoral General, según disposición adicional primera del Reglamento de elección*

2.- Galde-eskeak / Ruegos y preguntas

Iradokizunak: Aitor Sanchez Ferrera jaunak hitza hartzen du Gainerako IIP sektoreko kide moduan. Adierazten du gainerako irakasle ikertzaileen Hauteskunde Batzordeko ordezkariak ezin duela batzarrera bertaratu. Sektore horretako Gobernu Kontseiluko ordezkari bakarra izanik, zuzen eta zozketa gabe Hauteskunde Batzordeko kide bilakatzen dela, baina egoera horrek sektorea kaltetzen duela; izan ere, bileretara ezin bada bertaratu gainerako irakasle ikertzaileen sektorea hitz gabe geratzen dela adierazten du, are gehiago, boto gabe. Beraz, etorkizunera begira, legea aztertzea eta irtenbide bat proposatzea eskatzen du, gainerako irakasle ikertzaileek beste sektoreek dituzten eskubide berdinak izateko.

Sugerencias: El Sr. Aitor Sanchez Ferrera toma la palabra como miembro del sector del OTRO PDI. Indica que la representante del sector del OTRO PDI no ha podido acudir a la sesión de la Comisión Electoral. Siendo la única representante del sector OTRO PDI en Consejo de Gobierno, directamente y sin sorteo, entra a formar parte de la Comisión Electoral General, pero que esa situación es perjudicial para el sector; ya que en caso de no poder acudir a las sesiones el sector del OTRO PDI se queda sin voz, y sin voto. Por lo tanto, para el futuro, solicita que se analice la normativa y se proponga una solución, para que el sector del OTRO PDI tenga los mismos derechos que el resto de sectores.

Gai zerrendako puntu gehiago jorratzeko ez daudenez, bilkura amaitutzat ematen da, 13:05ean, eta nik, idazkariak, horren fede eman dut.

Sin más asuntos que tratar en el Orden del día, a las 13.05 horas se levanta la sesión, de lo que yo, el Secretario, doy fe.

35773168A MANUELA IGARTUA (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 35773168A MANUELA IGARTUA (R: Q4818001B)
Fecha: 2024.10.25 09:20:37 +02'00'

29035730R AITOR ZURIMENDI (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 29035730R AITOR ZURIMENDI (R: Q4818001B)
Fecha: 2024.10.24 13:08:34 +02'00'

Manoli Igartua Olaechea
**Hauteskunde Batzorde Nagusiaren Presidentea**
**Presidente de la Comisión Electoral General.**

Aitor Zurimendi Isla
**Hauteskunde Batzorde Nagusiaren Idazkaria**
**Secretario de la Comisión Electoral General**